

Joxe Urien ••• Artzaina

«Txakur ona, zortea eta lana behar dira»

Landakon izango da Durango Uriko I. Artzain Txakur Erakusketa. Sei zakurrek hartuko dute parte. Tartean izango da Joxe Urien abadiñarraren Xarpa, aurten jokaturako txapel guztiak irabazi dituen zakurra.

■ **Aurtengo jaietako berrikuntzen artean Durango Uriko I. Artzain Txakurren erakusketa izango da. Zer iritzi duzu?**

Ondo deritzot. Gerediaga Elkartek antolatutako Euskal Herriko txapelketaz gain, ez dut inoiz Durangon horrelakorik ikusi. Gainera, jaien antolatzaileek txapelketa hirigunean izatea nahi dute. Kanpoaldean jarritz gero, nahiz eta Durangon izan, jendea bertara hurreratzeko nahiko gaizki legoke. Kale erdi-erdian egitea oso polita litzake.

■ **Tankera honetako txapelketek gero eta harrera hobia dute?**

Nire ustez bai. Jendea, ikusiaz-ikusiaz, gustatzen hasten zaio. Azkenean ikasi ere egiten dute. Hasieran arauak ezagutu ez arren, ikusiaz lana

hobeto baloratzen dute ikusleek.

■ **Durangaldean nolakoa da zaletasuna?**

Nire ustez nahiko ona, Euskal Herriko Txapelketa ere Durangaldean egiten denez, jendea horiek ikustera ohituta dago.

■ **Artzain txakurren maila, berri, nolakoa da eskualdean?**

Nire ustez nahiko ona. Probinziako txapelketan, Euskal Herrikoan eta Oñatin egiten den nazioartekoan ere, txakurrak ondo aritu direla uste dut. Euskal Herri mailan erregularitate handia izan zen, eta Oñatin ere ondo aritu direla, uste dut.

■ **Bizkaian, Euskal Herrian eta nazioarte an txapeldun izan zara Xarpa-rekin. Oñatin jokaturako nazioarteko txapela jantzi**

duzu aurten laugarren aldiz. Zer behar da horretarako?

Urte asko artzaintza munduan sartuta egon, ezagutu. Gu txikitatik izan gara mundu horretan, eta txakurraren arraza eta lanari begiratuz txakur ona topatzen dakigu. Horrez gain, lan asko egin eta zortea.

■ **Zer esan nahi du aurten-go markak?**

Emaitzekin oso pozik nago, eta hiru astetan zehar lan asko egin, txakurraren gainean egon eta punta-puntan izaten ahalegindu naiz.

■ **Artzain txakur txapelketak indartuz doaz?**

Bai. Gero eta propaganda gehiago egiten da, eta Eusko Jaurlaritza era sartuta dago arrazak direla eta ez direla. Argi dago txapelketa hauek indarra hartzen ari direla.



XOUSE SIMAL



Joxe Urien Xarpa bere txakurrarekin.



LOIRO

- ETXE BARRUALDEEN APAINKETA
- PROIEKTUAK
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ALTZARI OSAGARRIAK

Komentu, 23
Tel. eta Faxa: 94 620 40 64
48200 DURANGO

OINETAKO

GOIEN

AUTOZERBITZUA

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Goienkale, 7

DURANGO



INFORMATIKA DURANGO

Ipar Informatika, S.L.

Askatasun Etorbidea, 9 Behea / Tel.: 94 620 17 39 E-Mail: ipar@jet.es

Zerbitzu berriak Eskaintza Paregabeak

Ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, multimedia, internet, sareak, enpresa zerbitzuak, informatika sistema eta hornidurak 3 urteko bermea. Eroatea eta Jartzea gure kontura. Erosi Orain eta Ordaindu 3 hilabetera, edo kredituz (Fimestic)



Aurkituko duzun kalitate eta preziorik onena. Zatoz gura eta zeuk ikusi!

EZKERZALEON

AKUAKU

TOPAGUNEA

Goxo eserita, Bokata bereziak, Kafea, Mundu osoko Infusioak
KALEBARRIA 17 - DURANGO

ASTEPE Kafetegia

- Egutero 7:30etatik aurrera gosariak, pintxoak, e.a...
- Umeen urtebetetzeak

Astepe Auzunea, 14 • Tel.: 94 681 89 64 • DURANGO

INTXAURRE

HERRIKO TABERNA

EUSKAL PRESOK



Gorka askatu!



EUSKAL HERRIRA

DURANGO



Urteko harpidetza 3.000 pzta. ERAZ zure etxean jasotzeko.
Deitu 94 620 17 67 tfnora edo txartel hau bidali Durangoko 79 postakutxara.

HARPIDEDUN TXARTELA

Izena: _____
Abizenak: _____
Helbidea: _____
Herria: _____ Telefonoa: _____
Kontu korrontea (20 digito): entitatea: _____ bulegoa: _____
kontrola: _____ zenbakia: _____